



# AKTOREAK ETA TXOTXONGILOAK BAT EGINIK

'Zer duzu negarrez, Marie?' antzezlanaren izango da ikusgai etzi Leidor aretoan, 17:00etan 3

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Osteguna  
2009-01-15

VII URTEA 1.603. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Eluska Agirresarobe ikaztegiaren denda; besteak beste, ogia bertan egiten dute. NEREA URBIZU

## «BIDE ONETIK DOA» ZERBITZU BERRIA

**IKAZTEGIETA** Eluska Agirresarobek duela sei hilabete hartu zuen bere gain herriko ostatuaren ardura; «gogorra da baina gustura nago», dio s

## Helegitea aurkeztu dute Egibarrek eta Olarrak EBn

IÑAKI ZUBIZARRETA IDAZLEA

«Niretzat Manuel ezagutzea Jainkoaren opari zoragarria izan da»

**LEITZA** 5 urtez lana biltzen aritu ondoren 'Manuel Lasarte, iturria ondare' liburua argitaratu du 7

## Rock doinuak asteburuan Bonberenean



Urtarrilak 17

**Sala Muxuren** denboraldi hasierako festa

Laser berria, argi ikusgarriak,  
gaur egungo musika, go-goak  
eta ezusteko asko.

Sarrera edariarekin: 8euro  
Ordutegia goizeko 1:00etik goizeko 7:00etara  
Goizeko 2:30ak arte sarrera doan.



Urtarrilak 24

Izugarrizko **Pirata festa**

Sala muxu • Albisualdea industrialdea 31 zkia.



**Musika** » Une eta Ost taldeak izango dira bihar eszenatoki gainean 22:30etik aurrera; etzi berriz, Kauta eta Lain.

## ERREDAKZIOA

Joan den astean amaitu ziren Bonberenearen 11. urteurrenaren ospakizunetako ekitaldiak. Baina oraindik ere indarrak badituzte eta asteburu honetarako ere hainbat emanaldi prestatu dituzte. Euskal rock doinuak izango dira nagusi bihar eta etzi 22:30etik aurrera. Lehenengo kontzertuan Une eta Ost taldeak izango dira eszenatoki gainean. Bigarrenean berriz, Kauta eta Lain.

**Hasteko, Une eta Ost**

Bere bigarren lana argitaratu du Une taldeak, *Hegalik gabe hegan* izenburupean. Taldeak 2004an eman zituen lehen urratsak musikaren labirintoan barna, eta Aitor Uriarte abeslariaren etorrerarekin batera jasan zuen garapenik handiena, gaurko forma hartu duen arte. 2006an argitaratu zuten lehen diskoa, *Une Nare Eza* izeneko. Taldearen lehen diskoaren izenburu bitxi honek memento trankilen edo lasaien eza adierazi nahi du. Diskoan rock eta pop ukituak zituzten kantak zeuden, metal puntuarekin batzuk, melodikoak beste batzuk, malenkonia edota tristeziangiroturik.

Baina Une taldea rock indartsuaren atalean dago, metala baino gehiago rocka dario bere musikari. Abesti indartsu eta gogorrek batzuk, eta beste batzuk lasaigoak, melodikoagoak, baina guztietan melodiaren indarra nabaritu daiteke. Izan ere kontrasteetan du oinarria lan berri honek, orain zuria, gero beltza, orain malenkolia, gero alaitasuna, orain lasai, gero abiadura.

«UNE taldea finkatuago dagoela esan daiteke; musikalki, askoz hobeto ezagutzen dugu elkar eta lan egiteko dinamika eraginkorra da. Une taldea, inongo konplexurik gabe, kantu gogorragoak, suabeagoekin tartekatuz, kantu intimista eta ilunak, kantu alaituagoekin, azkarragoak eta beste tempo batean bizi direnak, beti naturaltasuna mantenduz», azaldu dute taldekideek.

Bilbo inguruko hainbat banda-

# Rock doinuak zabalduko dira asteburu honetan, Bonbereneatik aterata



Duela gutxi Gaztearen Maketa Lehiaketa irabazi duen Lain taldea entzuteko aukera izango da asteburu honetan. HITZA

tan aritutako musikariek eta Lantzen eta Sen taldeetan izan zen Aitor Uriarte abeslari onatiarrak osatzen dute Une. Laukotearen lehen diskoa Defones eta Tool bezalako taldeen estilora gerturatzen da, melodia eta gitarrak indartsuak uzartuz.

Ost, 1995ko udan jaio zen. Bidorrorak taldeko kideek, lau urte jotzen aritu eta bi maketa (*Erlotjuaren Aurka* 1992an eta *Bi* 1993) grabatu ondoren, estilo aldaketa nabarmena izan zuela ikusi eta, izena (Ost) aldatzea erabaki zuten. Uda horretan, euren lehen-dabiziko maketa grabatu eta kale-ratu zuten, *Ost* izeneko, lau kanturekin. Kontzertu batzuk eman ondoren, eta diskoetxe batekin kontaktuak egiteko ahalmenetan porrot egin eta gero, Lorenzo Records estudioetan sartzea erabaki zuten, azkenean euren lehen diskoa izan zena grabatzeko. *Hitzak-Hotsak* (1996) izena zuen eta oso kritika onak izan zituen. Garai hartan, Ktulu, Koma, Su ta Gar, ANIMAL... bezalako taldeekin batera aritu ziren eszenatikietan.

Bi urtetan ahalik eta kontzertu gehien eskaintzen aritu ziren 2000. urtera arte. Garai horretan, hainbat ezusteko zirela eta, disko-



Une taldeak 'Hegalik gabe hegan' bere azken lana aurkeztuko du. E. EZEIZA



Kauta talde andoainarra Bonbereneako eszenatikietan izango da etzi. HITZA

etxe gabe geratu ziren. Gainera, Jon Renteria gitarrak jotzaileak taldea utzi zuen eta Iker Bengoetxea (Kode) dago orain bere orde. Bestalde, lokalik gabe geratu ziren 10 hilabeteen; Jabik, Ken7 taldearekin kolaboratu zuen zuzenekoetan urte eta erdian zehar... Hirugarren diskoaren grabaketa atzeratu egin zen 2006ra arte, hainbatezusteak.

Taldekoez azaldu bezala, «hain gogorra izan da beherdia, euskal musika munduan gehienek desagertutaz eman dutela taldea nahiz eta kontzerturen bat edo beste eman». Hala ere, denbora hone-

tan, ez dira geratu abesti berriak egin gabe eta euren hirugarren diskoaren grabaketa Xanperen (Pi LT) produktziopean amaitu dute: *Ostinato*.

**Asteburuari amaiera, Kauta eta Lain taldeekin**

Kauta 2001ean Andoainen sortutako rock taldea da. Mikel (ahotsa eta gitarra), Xabi (gitarra), Adrian (baxua) eta Gorkak (bateria) sortu zuten. Arrazoi pertsonalak medio, 2005eko urrian taldea uztea erabaki zuen Xabik, hirukote bezala jarraitu zutelarik.

*Isladak* beraien hirugarren dis-

**» ASTEBURUKO KONTZERTUAK****Urtarrilak 16, ostirala**

■ 22:30. Une eta Ost taldeen kontzertua izango da Bonberenean.

**Urtarrilak 17, larunbata**

■ 22:30. Kauta eta Lain talde gipuzkoarren kontzertua izango da.

koan, *Izan zaitze zu eta Biluzik* diskoen ondok eta bira luze baten ondok, urtarrilaren 12an Hator-txu Rock festibalean amaitu zena. Kautak hamaika kantu aurkezten ditu lan honetan, gitarra disonanteak, ahots melodikoak eta oinarri erritmiko indartsuak armonia perfektuan. Jimmy eat world edo Foo Fighters batzuen influentzia, alde batetik, eta Euskal Herriko bandek ezaugarri izaten duten potentzia, bestetik. Euren hitzek ere dimentsio bikoitz hori isladatzen dute, lokala eta globalaren artean, norbakoaren eta sozialaren artekoa, tokia egiten dietelarik haurtzaroko nostalgieri edo gerraren kontrako aldarriari.

Wheel Sound estudioan grabatua Cerdanyola del Valles-en, Txoseren laguntzaz (No Way Out, Trial By Fire...) eta Ultramarinos estudioan nahastua Sant Felu de Guixols-en, Santi Garcia-ren eskutik (No More Lies, Standstill), *Isladak* tresna perfektua da 7 urteren buruan eta kontzertu askoren ondok Kauta hirukotea beraien habitat naturaletik harantzago eza-gunak egin daitezten.

Lain taldea Kristina Aranzabe (gitarra eta ahotsa) Leire Berasaluze (gitarra eta ahotsa) Imanol Urkola (gitarra) Javi Rivero (baxua) Julien Kaminos (soinu teknikaria) eta Jon Altunak (teklatura eta bateria) osatzen dute. Talde gaztea da Lain, batzate beste 17 urte dituzte, baina duela egun gutxi Gaztearen Maketa Lehiaketa irabazi dute.

2007an sortu zen Lain taldea. Hasiera batean, Leire Berasaluze adunarrak eta Kristina Aranzabe billabonataren osatzen zuten taldea. Bikotea 2007ko azaroak Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketara aurkeztu zen, eta irabazi egin zuten. Hortik gutxira, kontzertu bat emateko deitu zieten, eta emanaldiak hasteko, taldea handitzea erabaki zuten. Honela, egun, bost gaztek osatzen dute taldea.

Abenduan hasi ziren Lain taldekoak beraien lehen-dabiziko maketa grabatzen. Jada ahotsa grabatzea besterik ez zaie gertatzen eta ondoren, nahasketekin hasiko dira. Grabazio lanetarako Amasako IZ estudioa aukeratu dute. Lehen-dabiziko lan hau sei abestik osatuko dute. Honetarako lehenagotik eginak zituzten abestiak erabiliko dituzte.

## Tolosaldeko komunikazio enpresa batek KUDEATZAILEA behar du:

Enpresaren kudeaketaz arduratzeaz gain (finantzak, fakturazioa, arlo komertziala...), hainbat eragilerekin izan beharreko harremanen kargu egingo den pertsona baten bila gabilta.

**Eskatzen da:**

- Kudeaketa-Administrazio arloko ezagutza izatea, antzeko lanetan aritu izana eta eskualdea ondo ezagutzea.
- Euskarra maila ona.
- Izaera dinamikoa, harremanetarako eta antoluntzarako gaitasuna.
- Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Interesa dutenek curriculuma bidali, argazkiarekin, gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora edo beste helbide honetara, urtarrilaren 20a baino lehen. JARDUNA S.L. Giza Baliabideak Saila - Martin Ugaldel Kultur parkea - 20140 Andoain Erreferentzia: THHK209

# 'Zer duzu negarrez, Marie?' antzezlana ikusgai, etzi, Leidorren

**Antzerkia** » 17:00etan hasiko da; aktoreen lana eta txotxongiloak nahasten dira Jokin Oregik sorturiko lan honetan.

## ERREDAKZIOA

Familia osoak ikusteko moduko antzezlana izango da etzi, larunbata, Leidor aretoan, 17:00etatik aurrera. Marie de Jongh antzerki taldearen *Zer duzu negarrez, Marie?* izango da, hain zuzen ere, taula gainean. Bertarako sarerrak [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) webgunean, Servikutxa, Telekomutxa (943001200), edota Leidorreko leihatilan eskura daitezke.

Aktoreen lana eta txotxongiloak nahasten dira ikuskizun honetan. Istorioa haurtzaindegi batean gertatzen da. Marie ume munstroa da protagonista. Haurren eta haurtzaindegiko nagusiaren artean sortzen den harremanaren gainean oinarritzen da istorioa. Protagonista gain, beste hiru ume daude haurtzaindegian. Mariek arazoak sortzen ditu etengabe, eta zaintzaileek mota guztietako bideak erabili dituzte hura kontrolatzen saiatzeko. Azkenean, antza denez, maitasun apur bat baino ez du behar neskatok.

## Sarituriko lana

Haurrentzako Nazioarteko Feten jaialdia irabazi zuen iaz *Zer duzu negarrez, Marie?* antzezlanak.



'Zer duzu negarrez, Marie?' antzezlanaren une bat. HITZA

Marie de Jongh antzerki taldeak gauzaturiko lana da, eta txotxongiloak eta aktoreak jartzen ditu agertokian, elkarren osagarri. Jokin Oregik sortu du lana eta Ana Meabek eta Javier Renobalesek antzeztzen dute.

Keinu soilezko antzezlana da, hitzik gabekoa. Meabek eta Renobalesek ematen diete bizia txotxongiloiei. «Funtsean, haurrentzat bizitzaren hasieratik maitasuna, harmonia eta segurtasuna

## » DATUAK

- **Antzezlana.** *Zer duzu negarrez, Marie?*
- **Egilea.** Marie de Jongh antzerki taldea.
- **Sortzailea.** Jokin Oregi.
- **Aktoreak.** Ana Meabe eta Javier Renobales.
- **Lekua.** Leidor aretoa.
- **Eguna eta ordua.** Etzi, 17:00etan.
- **Sarrera.** 5 euro.

jasotzea zein garrantzitsua den esaten ari gara lanarekin», azaltzen du Oregik, antzezlanaren egileak. Erritmo aldaketaz beteta dago lana. Eszena batzuk musika dute eta eguneroko egoerak umorez jorratzen dituzte. Sei urtetik gorako haurrentzako lana da, baina, Oregik dioenez, helduak ere entretentzeko pentsatuta dago: «Helduak gustura hartzen ez duen lana ez da izaten normalean haurren gustukoa ere».

# Futbolaren eskola izango du Tolosak

**Kirola** » Futbolaren hastapenen unitatea sortuko dute, 8-12 urtekoei zuzendua; hilaren amaieran hasiko dira.

## ERREDAKZIOA

Kirolarekin zerikusia duen proiektua jarriko dute martxan laster Tolosan. Hain zuzen ere, futboleko jokatzeko irakasteko eskola izango da urtarrilaren bukaera aldera abian jarriko dutena.

Gipuzkoako Foru Aldundiak sortuko du Futbolaren Eskola eta Tolosa CFk kudeatuko du. Horrela, proiektu berri honekin, Tolosa CFtik adierazi dutenez, «futbolaren hastapenen unitate bat sortuko da, eta hau 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutilei zuzendua egongo da». Euren asmoa urtarrilaren amaiera aldera hastea da, eta ekainera arte iraungo luke.

Futbolaren Eskolak astean egun batean emango ditu eskolak. Egun hori bertan parte hartuko dutenen artean erabakiko dute.

## Kirol osasuntsua helburu

Tolosa CFtik adierazi dutenez, «kirol jardueraren osasuntsuaz gozatzeko da ekimen honekin lortu nahi duguna». Hala, eskolan adituak di-

ren eta eskarmentua duten teknikariak izango dira, eta baita Tolosa CFko entrenatzaileak ere. Hauek futboleko ondo jokatzeko irakasteko gakoak emango dituzte. «Eskolatik kanpoko kirol jardueren osagarri izan nahi du proiektuak, honekin ez dugu ordezkatu nahi, bata bestearen lagungarri izatea baidiz», diote.

Futbolaren hastapenen unitatean parte hartu nahi dutenek Tolosa CFren bulegoetara jo beharko dute, arratsaldetan, 17:00etatik 20:30era. Bertan jasoko dute izena emateko agiria.

Izena eman dutenen zerrenda jarriko da, eta hilaren 27an bilera egingo dute, 19:00etan, Berazubi estadioan, azalpenak emateko.

**@ Eztabaida.** Gure webgunean hainbat gai buruzko iritziak sartzeko aukera duzu. ondo-ondorengo esaterako: «Krisi egoeran gaudela diote. Zuk zertan nabaritzen duzu hori? Nola egin ahal zaio aurre eguneroko bizitzan?». Gai honi eta beste hainbat buruz sartu dezakezu zure iritzia, eta beste irakurleek sartu dutena ere irakurtzeko aukera duzu. Eztabaidez gain, inkestak ere proposatzen dizkizugu. Bestalde, zurea da hitza atalean eskualdeari buruzko berriak sar ditzakezue.

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Laburrak

### Voith-Gorostidiri buruzko bilera, gaur, Kultur Etxean

**ETXEBIZITZA** » Voith-Gorostidiko etxebizitza tasatuak egokitu zaizkien bilera egingo dute, gaur, 19:00etan, Kultur Etxeko lehen solairuan.

### Odol emaleen hileroko odol ateratzea

**GIZARTEA** » Odol emaleen hileroko odol ateratzea datorren astelehenean, hilaren 19an egingo dute. Beti bezela, Kultur Etxera joan beharko da odola ematera.

## Batzarrera deitu du ezker abertzaleak, gaur, 20:00etan, udaletxean

**Politika** » Hauteskundeei buruz, D3Mren inguruan eta sinadura bilketei buruz ariko dira, besteak beste.

## ERREDAKZIOA

Tolosako ezker abertzaleak batzara egingo du gaur, 20:00etan, udaletxeako pleno aretoan. Bertan, egungo egoera politikoa eta hauteskundek jorratuko dituzte.

Azaldu dutenez, «martxoan izango diren hauteskundeen atarian, ziklo politikoa berri baten aurrean aurkitzen gara: demokrazia ez dagoen herri honetan inoiz baino ozenago entzuten da herri-tik demokraziaren nahia eta beharra». Hala, «oihu horri kasu eginez, mapatik kanpora utzi nahi duen herritar multzoak» benetako aldaketa planteatzen duela diote. «Demokrazia eta konponbide politikorako bidea aurkezten duen alternatiba aurkeztera goaz, eta ziur gaudela herritar ugari bat egingo duela nahi hauekin».

Gaurko batzarrean D3M-ren (Demokrazia 3 Milioi) inguruko argibideak eta sinadura bilketaren inguruko zehaztasunak azalduko dituztela, besteak beste, argitu dute.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona bat behar da. Interesatuak deitu 656 41 68 08 telefono zenbakira.

### ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Lekunberrin, 104 m<sup>2</sup>ko etxebizitza. Lau logela, berogailuarekin. Lehenengo pisua. 480 euro. 636 17 16 24.

# AHTren aurka deitu dute Gazte Independentistek

**Azpiegiturak** » Arrazoi politikoak argudiatu dituzte trenbidea eraikitzearen pizgarri gisa eta biharko eskolak geratzeko deitu.

## ERREDAKZIOA

Motibazio politiko interesatuak daudela iritzi dio Gazte Independentistak taldeak Abiadura Handiko Trenaren proiektuan, eta gazteei dei egin die datozen hiru egunetan burutuko diren protesta ekitaldietan parte hartzeko. Atzo Ordizian Goierriko eta Tolosaldeko taldeek egin zuten prentsaurrekoan esan zuten «proiektu kapi-



Ordizian atzo arratsaldean egindako agerraldia. GOIERRIKO HITZA

talista eta politiko» estatuaren eta autonomismoaren indargarri da.

AHTren aurka egoteko ingurumen arloko argudioak, baina batez ere politikoak plazaratu ditu gazte erakundeak. «Konpon ezinezko kalteak eragingo dizkio amalurrari», diote ohar idatzi batean.

Politikan, berriz, Espainiako eta Frantziako gobernuen interesei erantzuten die «estatuaren batasunerako tresna» delako. EAJK bat egin izana «euskal megahiria sortuz proiektu autonomista indartzeko» dela iritzi diote, «diru goseaz» gain. Alderdi horretako arduradunek enpresa-interesak dituztela ere esan dute.

Bi estatuetako, EAEko eta Nafa-

rraoko gobernuak «egite kontsumatuen politikaren eta inposaketaren aldeko hautua» egin izana kritikatu dute.

**Ikastetxeetan geldialdia bihar**  
Gazte Independentistak taldeak ikastetxeetan geldialdiak egiteko deia egin du, «AHT gelditzeaz harago aldaketa politiko eta soziala bultzatu» behar dela gehituz. Tolosaldean 11:00etan eskolak gertatzeko deialdia egingo dute eta gero trena hartuko dute Ordizian, 12:00etan, Plaza Nagusitik aterako den manifestazioan parte hartzeko. Bestalde, Urbinako etziko manifestazioa nazionalarekin ere bat egin dute.



## Ahaldun nagusiaren bisita herrira

**LARRAUL** » Markel Olano ahaldun nagusiak bisita egin zuen atzo Larraulera eta bertan Udaleko ordezkariak herrian aurrera ateratu nahi dituzten proiektuen berri eman zioten. Landa Gipuzkoa 32 egitasmoaren diru laguntzak lortu nahi dituzte lau proiektuetarako. Horietatik hiru azpiegiturak berritzearekin zerikusia dute: ur sarea, haurerentzako parkea eta frontoia. Beste proiektua erabilera publikorako lokal berriak egitea da. Xabier Mujika alkateak azaldu duenez, «egin berri den erabilera balioanitzeko eraikinaren zati bat eskolak eta haur eskolak hartu dute. Horregatik, beste premia batzuen tzako lokal berriak behar ditugu». HITZA

## Villabonan, Anoetan eta Alegian, D3M aldeko sinadura bilketak

### ERREDAKZIOA

Villabonan, Anoetan eta Alegian Demokrazia 3 Milioi (D3M) herri plataformaren aldeko sinadurak biltzen ari dira udaletxeetan. Villabonan, hilaren 23ra arte, 08:00etatik 14:00etara dago aukera astelehenetik ostiralera eta astearte eta ostegunetan 19:00etatik 20:00etara ere. Larunbatean 11:00etatik 13:00etara bilduko dituzte sinadurak. Anoetan, hilaren 23ra arte ere, astelehenetik ostiralera 10:00etatik 14:00etara jasoko dituzte sinadurak eta ostiraletan ere 16:00etatik 19:00etara. Alegian hilaren 24ra arte izango da aukera, astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara eta larunbatetan 11:00etatik 13:00etara.

## Liderrari garaituz hasi du urtea Transportes Lakunza taldeak

**Villabona** » Lasarte Clinica Dental taldeari 2-1 irabazi zioten Olaederra kiroldegian jokaturako partida borrokatuan.

### ERREDAKZIOA

Garaipen garrantzitsua lortu zuen Transportes Lakunza areto futbolleko taldeak lehenengo postuan zegoen Lasarte Clinica Dental taldearen aurka. 2-1 irabazi zuten, garaipen borrokatua izan zen, sufrimendu handiz lortutakoa.

Ikuslegoak ez zuen hutsik egin eta Olaederra kiroldegira azaldu zen partida interesgarria ikustera. Bestearekiko errespetu handiz hasi zuten bi taldeek norgehiago-

ka, baina billabonatarrek irabazi egin behar zutela sinistuta atera ziren, gorako postuetatik ez aldentzeko. Lakunza mina ematen hasi zen baloia ondo mugituz eta Lasartekoek erasora egiten zituzten saiakerak ondo itxiz. Lehenengo zatian aurkariek ez zituzten sortu aukeragehiegirik.

Bost minututan heldu ziren etxekoek bi golak. Lasartearrek ez zuten espero bi gol jasotzea eta markagailuan atzean izatea, oso ondo ixten baitira atzean eta gol gutxi egiten baitzituzte. Ibon eta Juankarrek egin zituzten bi gol horiek. Lehenengo zatia amaitzen kanpokoek aukeraren bat izan zuten baina ez zen askorik izan.

Lakunza jokalariek bazekiten bigarren zatian lasartearrek gora-

go egingo zutela presioa eta beiraiei jokia ez bazuten egiten asko sufririk zutela. Eta horrela gertatu zen. Hainbesteko presioa egin zuten, Lakunzakoek denbora gutzian defendatzen ari zirela eta gutxitan egoten zen lasartearren kanta-zatia baloia. Lakunzak kantxaren erdian defendatu beharrean atzerago joan ziren eta modu horretan sortzen zizkieten gol aukera ugari.

Aipatu beharra dago Villabonako bi atezainen partida, lasartearren jaurtiketak behin eta berriro geldituz eta jokalariek etsituz. Partidaren amaieran billabonatarrek azaldu zuten, beste ordu erdi bat gehiago jokatu arren lasartearrek ez zituzten golik egingo, arratsalde hura Lakunzarentzat zela zirudie-

lako. Modu honetara iritsi da aurtengo lehenengo garaipena Lakunzarekin eta sailkapenean distantziak murriztu dituzte, aurreko partidaren Bilbon izan zuten huts egitearen ondoren.

### Hurrengo partida Beti Arin taldearen aurka

Partida zaila izango dute ere hurrengo asteburuan billabonatarrek. Aurten Euskal Liga Mailara igotzen den taldea da Beti Arin eta egun lehenengo postuetan dago, azken jardunaldian berdinketa lortu ondoren.

Erasora asko jokatzen duen taldea da gernikarra, lehenengo itzulia amaitu baino lehen dagoeneko 80 gol bere alde eta 60 aurka dituelako. Lasartearren aurka egindako defentsa errepikatu beharko dute billabonatarrek Gernikatik hiru puntuak ekartzeko. Etzi, larunbatean, jokatuko dute partida Santanape kiroldegian. 17:00etan hasiko da norgehiagoka.

## Laburrak

### EAEko hauteskundeetara buruzko bilera udaletxean

**ANOETA** » Ezker abertzaleak bilera deialdia egin du gaueko, 19:00etan, udaletxean. Bertan, EAEko hauteskundeetara buruz hitz egingo dute.

### Oinkariko egutegien zozketako zenbaki sarituak

**VILLABONA** » Oinkari dantza taldearen egutegien zozketako hiru zenbaki sarituak ondorengoak dira: 2416, 8167 eta 0977. Saridunak jar daitezela harremanetan 660 139 380 zenbakian. Oinkarik eskerak ematen ditu lagundu duten guztiak.

Urte erdia darama irekita Ikaztegiako ostatuak; honen ardura Eluska Agirresarobek hartu zuen eta «lan hau gogorra bada ere», «gustura» dago herritarrei zerbitzu hau eskaintzen.

# Zerbitzu berria bide onean

## NEREA URBIZU

**D**uela urte erdia Ikaztegi-tan Udalak ostatuak mar-txan jarri zuen berriz. Eluska Agirresarobe tolosar gazte-ak hartu zuen eta bera arduratzen da guztiaz, «baina laguntza handia daukat hau aurrera eramateko». Ikaztegiako Udalak lokala aloka-tu nahi zuen, eta alokatzen zuenak bere gain hartuko zuen taberna-ja-tetxea, denda eta goiko aldean dauden lau logelak. Hala egin du beraz, Eluska eta 6 hilabete dara-matza.

«Proiektua aurkeztu nuen eta batez ere gustatu zitzaizen eskal-duna nintzelako, azken batean, hori zen baldintza nagusietako bat. Zine-klubak egingo zirela, kultur ekitaldiak... egin nahi genituela adierazi genuen aurkeztutako proiektuan». Agirresarobek dioen bezala, «martxan jartzeko zailak diren gauzak dira, baina gutxinaka egingo ditugunak».

Ostatuko lana gogorra dela jakina da. Hasiera batean bera eta beste lagun bat zeuden baina orain berak eramanen du, sukaldari baten laguntzaz, asteburutan beste la-gun bat hartuta eta lau logelengar-

biketarako garbitzaile baten la-guntzaz. «Eskerrak hauei, bestela zaila izango litzateke: lan hau lotua eta gogorra da».

Egunero menua eskaintzen dute bazkalorduan eta asteburu-tan bazkalorduan eta afalorduan, menua eta plater konbinatuak. Orain gutxi arte, zine-kluba ere izaten zen, pantaila erraldoi bate-an. «Ostiral iluntzean helduentza-ko izaten zen eta egande arratsal-detan haurrentzat». Bestela ere, pilota partidak eta futbola ere es-kaintzen dute pantaila erraldoian, «ikusleak nahi duena jartzen dugu».

## Barruko denda, denetik

Tabernaren barruan denda dago eta eguneko oinarriko gauzetatik hasita, «pixka bat denetik» aurki dezake erosleak: «Orain sukalde-ko labean ogia egiten dugu eta erostekoa ogi egin berria erosteko aukera du». Kontserbak, esnekiak, garbiketarako produktuak, har-ragia... ere daude.

Egunero irekitzen dute eta edo-zein ordutan joanda ere, eros dai-teke. «Beti 22:00ak arte behintzat gaude eta goizetan 09:00etan ire-kitzen dugu. Asteburua bada,



Ogia bertan egiten dute ere. Irudian, Eluska Agirresarobe denda. N.U.U.

10:00etan. Astearte arratsaldetan itxi egiten dugu, gure jai egun erdi bakarra da».

«Normalean jende heldua etor-tzen da erostera. Abantaila da, ez dutelako ia ibili beharrik, tren-a ez dute hartu behar beste herri-batzuetara joateko... Bestela ere, gazteentzako goxokiak ere badau-de. «Herrian jende gazte asko dago, herria txikia izanik ere». Bes-tela ere, bidegorria jende asko

erabiltzen du eta «horiek ere ha-maiketakoa egitera joaten dira os-tatura».

Lo egiteko 4 logela daude goiko aldean eta orain arte «ondo» joan da: «Ibiurko langileak etorri izan dira lo egitera, erromesen bat ere izan dugu. Jendea etortzen da, bai-na hala ere, orain gutxiago dabil».

Eluska Agirresarobek denda, ta-berna-jatetxea eta ostatu erama-ten ditu, eta horietako bat aukera-tzekotan, logelak aukeratuko li-tuzke; gero, denda.

## Jubilatuek, prezio bereziak

«Herriari eman zaion zerbitzu be-rria da ostatuarena. Proposame-nak jasotzeko prest gaude eta ba-tzuk jaso izan ditugu; ahal den neur-rian kontuan hartzen ditugu eta joango gara hobetzen». Berakesan bezala, «24 urte daukat eta asko ikasteko oraindik: gutxinaka joan-go gara». Kontuan izan behar da, 6 hilabete daramatzala honekin, baina gogoekin ari da lanean.

Jubilatuek kontsumizioetan %10eko beherapena dute (Udalak txartel bat eman die) eta han egote-ko leku aproposa aurki dezakete bertan. Kiroldegian dute lokala be-rez, «baina baztertu xamar dago».

## Laburrak

### Urbino manifestaziora joateko autobusak

**AHT** • Etzi Urbinoan AHTren aurka-ko manifestazioa egingo dute 12:00etan eta eskualdetik autobu-sak aterako dira. Bazkaria Gastei-zen egingo dute ondoren eta Mu-sikherrian-ek antolatutako jaialdi-rajango dira gero. Autobusez joateko izena emateko honako he-rrietan egin daiteke: Tolosan, Ano-etan, Ibarra, Villabonan, Alegian eta Ikaztegiatan.

### Etzi Jai batzordeak deitutako bilera izango da

**BALIARRAIN** • Baliarraingo jai batzordeak bilera batera deitu du etzirako. Bertan, besteak beste, Jai batzordearen aldatetaz ariko dira. 19:00etan izango da kultur gelan eta hauek dira jorratuko dituzten beste gaiak: urteko kontuen balan-tzea, oharrak, bideoen kopien era-bilpena eta urteko irteeren balan-tzea. Ahalik eta jende gehien azal-tzea nahi dute, herritarrei «joateko ahalagin berezia» eskatuz.

### Batzordeak astelehenean eta asteartean izango dira

**AMEZKETA** • Hirigintza-obretarako batzordea eta kontuen batzorde berezia Amezetan egingo dute astelehenean. 20:30ean izango da udalbatzean. Arau berriztatzaileen aldateta puntualak, hirigintza kont-sultak, informazioa... Kultura, gi-zarte ongizate eta ingurumena batzordeak asteartean izango da. Hau ere 20:30ean izango da. Kirol batzordea osatzeaz ariko dira, Udaleko lokalen eskaeraz eta UEMAko ordezkariaz hitz egingo dute. Jubilatuen programa zehaz-ten hasiko dira ere beste gai asko-ren artean.

### Intxurre futbol taldea Oartzunen ariko da

**ALEGIA** • Etzi Intxurre lurraldeko bigarren mailako futbol taldekoek partida jokatu dute. Igoera fasea jokatzen ari dira alegiarrak eta oraingoan Oartzunen kontra joku-tu beharko dute, han bertan 17:30ean hasita. Memento, hiru-garren postuan daude, aurretik Ordizia eta Kostkas Miren Bihotza taldeak daude.



Pantaila erraldoian telebista ikusteko aukera dago, eta baita zine-kluba ere. Eskuinean, dendako apaletako batzuk: denetik dago. N. URBIZU



txokoa

## 5 sarrera pare

zozketan, deitu eta eskuratu!

**ZER DUZU NEGARREZ, MARIE?**

Haurrentzako antzerkia

Urtarrilak 17 • Larunbata  
17:00etan • Tolosako Leidorren



## 2 sarrera pare

zozketan,  
deitu eta  
eskuratu!

Urtarrilak 23  
Ostirala  
20:30ean  
Tolosako Leidorren



## ANTZERKIA

## Egibarrek eta Olarrak helegitea aurkeztu dute EBn

### Villabona-Zizurkil

Europako Batasunak osatu ohi duen 'terroristen zerrendan' sartu izana salatzen dute.

#### ERREDAKZIOA

Zazpi euskal herritarrek helegitea aurkeztu diote Europako Batasuneko lehendakariari orain gutxi «terroristen zerrendan» sartu dituztelako. Herritar horietako bi eskualdekoak dira; Mikel Egibar zizurkildarra eta Joxe Mari Olarra billabonatarra. Gainontzeko herritarrek Xabier Alegria, Elena Beloki, Miriam Campos, Mikel Korta eta Juan Mari Olano dira. Aipatu herritarrek pasa den abenduaren 16an sartu zituzten Europako Batasunak osatzen duen «terroristen zerrendan».

Herritarrek agertu dutenez, euren zigorren helegiteak aurkeztuak dituzte eta ondorioz, zerrenda honetan sartu izanak euren defentsarako eskubidea urratzen du. Helegitea Didier Rouget eta Jone Goirizelaia abogatuak sinatu dute eta aurkeztutako agirien artean nazioarte mailako hainbat ebazpen helarazi dituzte, izan ere ebazpen hauen arabera Espainian «terrorismo delitua gehiegi zabalzen» dute.

### Zigorak

Zazpi herritarretako seiak zigorrak jaso dituzte 18/98 auziaren baitan eta bestearena 33/01 auziaren barruan kokatzen da, zigor guztiei aurkeztu dizkieta helegiteak Auzitegi Gorenean, hala ere. Auzitegiak helegiteak onartu ditu eta beraz zigorrak ez dira irmoak oraindik.

Horiek horrela, zazpi Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideek Komitearen jarrera kontutan hartzeko eskatu diote EBari. NBEak 2008an esan zuenez «larrituta» baitzegoen Espainiako kode penalaren 572 artikulutik 380ra egiten diren terrorismoaren definizioak oso zabalak direnez eskubide desberdin urraketa ekarri dezakete eta.



## 100 bete ditu Maria Albizuk

**GAZTELU** Maria Albizu gazteluarrak 100 urte bete zituen atzo eta hori dela-eta herriko Udaleko kideek omenaldia egin nahi izan zioten. Lore sorta eta beste opari bat eman zioten bere senitarke eta lagunez in-

guratuta zegoela. Maria Albizuk 5 seme-alaba ditu eta ez omen zaizkio ahazten ez seme alaben ez eta biloben urtebetetze datak ere. Oraindik ere saio ederean dagoela utzi zuen agerian gazteluarrak. R. CALVO



Mappi Egues eta Leire Amonarriz izan dira saridunak. HITZA

## Ipar Euskal Herria hobeto ezagutuz

**Ibarra** Alurr Dantza Taldeko ikasleak maskarada ikastaroa eta beste bi dantza ikasten aritu dira azkenaldian.

#### ERREDAKZIOA

Ibarrako Alurr Dantza Taldeko kiderik gazteenak Lapurdiko zein Nafarroa Behereko hainbat dantza ikasten aritu dira azkenaldian. Batetik, abenduaren 22, 23, 29 eta 30ean Lapurdiko Luhuso eta Hazparneko hainbat lagun bista

jaso zuten Ibarren eta maskarada ikastaroa jaso zuten. Bestetik, hilaren 10 eta 11n Nafarroa Behereko Bidarraiko aterpetxean izan ziren Iparaldeko Dantzarien Biltzarrak gonbi datuta bertako bi dantza ikasi eta Dantzarien Egunen herrian eskaintzeko.

Bestalde, Alururen urteroko zozketako irabazleak Leire Amonarriz eta Mappi Egues izan dira.

Aipatu behar da, era berean, Tolosan egindako *Sua* ikuskizunaren estreinaldia eta geroko lehen emanaldia Ibarren izango dela hilaren 30ean 22:00etan.

## Berdinketa lortu dute Nafarroako Area 99 aurkako partidariak

**Ibarra** Ibarrako areto futbolero Lauburu taldeak bina egin zuen pasa den asteburuan etxean.

#### ERREDAKZIOA

Partida bizia izan zen larunbatekoa, baina Ibarrako Lauburu taldeak ezin izan zuen berdinketa besterik lortu. 2-2 amaitsu zen azkenean Nafarroako Area 99 taldearen aurkako partida.

### Ruben Etxarteren golak

Lauburuoko partidako ia zati guztietan Area 99 baino hobeto aritu ziren eta azkenean 15. minutuan sartu zuen Lauburuko Ruben Etxarterek lehen gola. Eguneko Ibarrakoen bigarrena ere Etxarterek sartu zuen.

Ion Ander Karrera jokalaria gaztea ere ondo aritu zen eta behar bada horregatik aritu ziren Nafarroakoak bere orkatila mindu nahian.

Berdinketa honi esker Lauburu taldea, 23 punturekin, sailkapenerdi erdi parean kokatu da.

## Laburrak

### Herri batzarra gaur, Kultur Etxean

**IBARRA** Datorren martxoaren 1ean burutuko diren hauteskundeak direla eta, Ibarrako ezker abertzaleak herri batzarrera deitu du gaurko. Batzarra 19:30ean izango da Benito Izagirre kultur etxean eta bertan, besteren artean, Demokrazia 3 Milioi (D3M) plataformaren sinadura bilketari buruz hitz egingo dute.

### Ekonomiari buruzko hitzaldia Gaztañondon

**BERASTEGI** Berastegiko Aldin Elkarrekin ekonomiari buruzko hitzaldia antolatu du bihar ostiralerako. Hitzaldia Joseba Barandiaranek eskainiko du Gaztañondon 21:00etan. Barandiaran ekonomiaren inguruko mahai-inguru eta hitzaldi askotan hartu du parte eta euskarazko komunikabide askotara gonbidatu ohi dute.

## Eskuragarri daude jada diru laguntzak jaso ahal izateko eskaerak

**Ibarra** Herriko irabazi-asmorik gabeko kultur eta gazte taldeei zuzendutako laguntzak dira.

#### ERREDAKZIOA

Ibarrako Udaleko Kultura eta Gazteria Sailak jakinarazi duenez, saileko 2009. urteko kultur jardueretarako diru laguntzak jasotzeko epea ireki dute jada.

Eskaera guztiak otsailak 13 baino lehenago bidali behar dira herriko kultur etxera eta eskaera orriak zein inprimakiak Udaleran web orrialdean eskuratu daitezke ([www.ibarrakoudala.net](http://www.ibarrakoudala.net)).

Ohikoa den moduan bi diru laguntza mota desberdin daude: aurtengaratu diren kultur jarduerak eta egitarauak eta aurtengaratu diren ezohiko jarduerak bi deratutakoak.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**E Elkarrizketa**

**IÑAKI ZUBIZARRETA** › Manuel Lasarte, iturria ondare' liburuen egilea



AIORA LARRAÑAGA

# «Jainkoaren opari zoragarria izan da niretzat Manuel ezagutzea»

**Leitza** › Iñaki Zubizarreta duela 5 urte hasi zen Manuel Lasarteren lana biltzen. Iragan azaroan argitaratu zuen lan horren emaitza.

**ASIER IMAZ**

*Manuel Lasarte, Iturria ondare* liburua eta CDa kalean dira. Iñaki Zubizarreta (Azpeitia, 1947) Leitza jaio zen bertsolari handiaren laguna izateaz gain, bilduma lan honen egilea ere bada. Orion aurkeztu zuen Zubizarretak azken bost urtetako lana, Manuel Lasarte ondoan zuela.

**Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkartearen lan egiteaz gain, idazlea ere bazaitugu.**

EIZIEko bazkideana izan eta bi urtez lehendakaria izan nintzen hasierako urteetan, baina lana, berez, Donostiako Herri Irratian egin nuen hamabi urte ta erdiz, eta gero azken hogeita sei urteotan bikoizketa etxe batean ari naiz lanean: Eresoinka zuen izena hasieran, gero Irusoin eta orain Mixer. Idazlearen beste kontu bat da. Irun Sarriko finalista izan eta argitaratu egin zizkidaten poemak, artean gazte nintzela, baina geroztik ez dut ezer argitaratu oraintsu arte, itzulpen batzuk izan ezik.

**Literaturarekiko harremana nondik dator kizu?**

Batez ere irakurle izan naiz ni betidanik. Poesia eta filosofia zalea naiz. Poesia, jakina, oso kanpo zala.

**«Nik hasieratik neukan buruan liburu honetan gaikako antologia bat egin behar nuela»**

bala da. Hor sartzen ditut bertsolariak ere; ahoko poesia, alegia. Nondik dator kidan? Txikitatik izan dut irakurtzeko grina, eta areagotu egin zidaten gogo hori, noski, kaputxino artean eginiko 11 urteko ikasketek.

**Fraide zinela edo utzi berritan entzun zenuen Lasarteren saio bat lehen aldiz. Argia ikustea bezala izan al zen edo nola gogoratzen duzu une hori?**

Guk jakina, kultura idatzia landu genuen, eta fraidetatik irtetean halako aurkikuntza bat izan zen aholkoa. Txikitatik ezagutzen ni-

tuen bertsolariak, Azpeitiko plazan kantari Santo Tomasetan eta, baina hamaika urteko komentu aldiaren ez genuen aukerarik izan. 1969tik aurrera, hamabost bat urtean, bertsolaritza gozatzeko aukera ederra izan nuen.

**Uztapide eta Lasarte: bi izarren distira.**

Bi izar eder, bai, bertsolaritza distira eman ziotenak, eta guri gozamenena. Oraindik ere gogoan dituzte bertso zaleek bikote honen bertsoak. Gozoak ziren kantuan eta zuzenak arrazoibidean. Umore finekoak biak eta elkar ongi hartzen zutenak. Hunkigarriak dira elkari eskainitako bertsoak eta hitzak han eta hemen.

**Manuel Lasarteren inguruan hitz egiten duzunean, behin eta berri, iturria hitza aipatzen duzu. Zergatik?**

Izan ere iturriari ura bezalaxe dario Manueli hitza, kontari ari denean, eta bertsoa, kantari ari denean. Lasarte aipatu eta iturria dator kit niri burura, bertso eta hitzen ur freskoa dariona.

**Gai ugari jorratu ditu Manuel Lasarterek bere ibilbidean. Baina liburu honetan ezin duzu aukeraketan eta zergatik?**

Hori hala da; ez dago Manuelen ekarpena liburu batean mugatzerik. Zortzi liburu bikain ditu argitaratuak. Milaka bertso kantatuak. Elkarrizketa asko egin dizkiote han eta hemen. Nik hasieratik neukan buruan gaikako antologia bat egin behar nuela. Orain bost urte hasi nintzen berri ere Manuelen liburuak eta elkarrizketak poliki irakurtzen, eta bertsoak entzuten.

**«Uztapide eta Lasarte; bi izar eder, bertsolaritza distira eman ziotenak, eta guri gozamenena»**

Irakurri eta entzun ahala, Manuelek gehien erabiltzen dituzten gaietara biltzen joan nintzen haren ekarria: familia, bertsolaritza, erlijioa, natura, umorea...

**Nola osatu duzu liburua, hau da, bizkarrezurra?**

Hasteko Manuelen bizitza ekarri dut gogora: eskola, lana, osasuna... Gero lehen esan bezala gaietan bildu dut Manuelen lana: gai horiei buruzko bertsoak eta idatziak. Eta bukatzeko, ehun bat orrialdeko hiztegitxo bat osatu dut. Hor Manuelen hitzak eta esapideak bildu

ditut, eta esaera zaharrak ere bai, Manuelek bere erara moldatuak, edo esaera berriak esaera zahar bihurtzeko modukoak.

**CD bat ere libururekin batera doa. Nolatan ideia hau?**

Manuel bertsolaria izanik, horixe zen osagarri egokiena, lehengo bertsozaleek gogora dezaten haren ahotsa eta kantatzeko modua, eta gaurko gazteek goza dezaten.

**Manuel Lasarteren inguruko liburuxka argitaratu zenuen 'Bidegi-leak' bilduman. Erakusketa ere jarri zenuen martxan. Orain bigarren liburua CD batekin. Zein da Manuel Lasarte zuretzat?**

Ez da batere erraza hitzez adierazten zein den Manuel Lasarte nire-

**«Bertsolari gazte asko hurbiltzen zaizkio Manueli eta berak oso pozik hartzen ditu»**

**«Lasarte aipatu eta iturria dator kit burura, bertso eta hitzen ur freskoa dariona»**

tzat. Alde batetik bertsolari handi bat, berezko sortzaile paregabea; eta bestetik laguna, adiskidea. Jainkoaren opari zoragarria izan da niretzat Manuel ezagutzea, inoiz atzendumo ez dudana.

**Leitza jaio zen Manuel Lasarte. Gaur egun Orion bizi da. Haurtzaroko herri hura nola gordetzen du bere buruan?**

Hori Manueli berari galdetzea izango litzateke onena. Nik ikusi dudana da ez duela inoiz ahazten jaioterria, gogoan duela beti haurtzaroko Leitza, amarekin eta aitarekin batera, familia osoarekin batera.

**12 urterekin hasi zen lanean. Zertan eta ze kontextutan?**

Hamaika bat urte zituela hasi zen ferratokiaren koinatuari laguntzen. Leitzaiko Frankitik Aiara joaten ziren biak, astelehen goizean atera eta larunbata arte. Gero Aiara bizi-tzera etorrita, berehalaxe joan zen pintxe basora, Ernio mendira. Oso gazterik hasi zen, beraz, lanean; haur, artean. Lana izan du Manuelek bizitzako eskola.

**Eta bertsoa nondik xurgatu zuen?**

Amaren magalean sortu zitzaiola, esango nuke nik, bertsoarako dohain aparta. Berak dion bezala: *le-nengo antxe* (Franki inguruan) *asi nintzan bertsoetan*. Uztapidek ere hala zioen: *txori kantu politikango basuetan, aiekin nasi-asi ziñan bertsoetan*. Txikitatu xurgatu, berezko iturri oparo bihurtzeko gero.

**Zein da Manuel Lasarterek gaur egungo bertsolaritza buruz duen iritzia?**

Ez da erraz adierazten zer iritzi duen. Hemen ere berari galdetzea izango litzateke onena. Baina bai esan dezaket bertsolari gazte asko hurbiltzen zaizkiola, eta berak oso pozik hartzen dituela.



11°  
4°

GOIZA OSTARTEAK  
ARRATS.OSTARTEAK  
BEROENA 10°  
HOTZENA 3°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Kirola

■ **Asteasu.** Aranotik Besabira antolatuta du irteera Sagain mendi taldeak iganderako, Zaburu (778 m.), Onddo (781 m.) eta Adarra (811 m.) gainak igoz. Irteera 08:00etan izango da udaletxe aurrean eta eguerdirako itzuliko dira.  
■ **Tolosa.** Eski irteera Formigalera antolatuta du Oargi mendi elkarteak hilaren 17 eta 18rako. Izen-ematea, 943 675612, 688 698642 eta [www.oargi.org](http://www.oargi.org).  
■ **Villabona.** Ezkurrik Sunbillara irteera antolatuta du iganderako Aizkardi mendi elkarteak, Iruñarri (1.051 m.), Lexarburu (916 m.), Lizartxeta (949 m.), Loizate (1.048 m.), Ekaitza (1.047 m.), Mendaur (1.131 metros) igoz. 7 ordu inguru-koa izango da.

### Erakusketak

■ **Alegia.** Marce Tenaren begiei buruzko margolanak ikusgai asteartetik igandera bitarte Jubilatuen tabernan.  
■ **Tolosa.** Ana Jesus Ansorena tolosarraren buztin egosi artelanak ikusgai Lanbroa tabernan.  
■ **Tolosa.** Geureak ere badira adingabe horiek, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren inguruko argazki erakusketak eta bisita gidatuak Kultur Etxean.

### Deialdiak

■ **Aduna.** Asvinenea Kultur Elkarteak III. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa antolatuta du profesional zein amateurrentzat. Informazioa eta izen-ematea, [www.asvinenea.com](http://www.asvinenea.com) webgunean.



## Kotxeak badu jabea

**TOLOSA** Gabonetan Tolosako Alde Zaharrak Dendak elkarteko dendetan erosten zuena kotxe bat irabazteko zozketan sartzzen zen. Egun horietan ehunka eta ehunka lagunek egin dituzte euren erosketak denda hauetan baina guztietan irabazlea Esther Fernandez

de Antona tolosarra izan da. Honek Lizarralde harategian eginiko erosketarengatik jaso du saria. Irudian, Lizarralde harategiko Rosarito Gorostiaga, irabazlea eta Itxaropena Elordi, Alde Zaharra Dendak elkarteko lehendakaria.

■ **Ibarra.** Hilaren 23an 18:00etan Belabietan kiroldegian izango den Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen Piratak ikuskizunerako sarrerak salgai 6 eurotan Ibarra Zubiaurre Tabernan, Lurdes dendan, Errotatxon, Uzturpe Ikastolan eta Tolosako Zumbeltz disko dendan.  
■ **Tolosa.** Martxoako hauteskunde etarako hautesle zerrendak ikusgai udaletxeko beheko solairuan, erreklamazioak egin ahal izateko.  
■ **Tolosa.** Alpino Uzturrek fondoko eski ikastaroa antolatuta du hilaren 17 eta 18rako 1995-98an jaiotako haurrentzat. Izen-ematea, 685 776504 edo [alpinouzturre@begi-ra.com](mailto:alpinouzturre@begi-ra.com).

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.  
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

## LIBURUA SALGAI

Salmenta:  
Liburuaren prezioa: 18 €  
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:

5 liburu 80€	10 liburu 140 €
-----------------	--------------------

Salmenta puntuak:

- Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitzako bulegoetan,
- Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburudendetan.
- Ibarra Lurdes liburudendan.
- Villabonako Basajeun liburudendan.



1936KO GERRAKO  
OROITZAPENAK  
TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN

ARANZADI

galtzaundi

FOROALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

hitza